

BRUNDTLAND TXOSTENA: GURE ETORKIZUN KOMUNA

1984ko urrian bildu zen lehenengo aldiz Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordea (*World Commission on Environment and Development*) Nazio Batuen Batzar Nagusiak egindako premiazko deialdiari erantzuteko. Ildo horri jarraiki, aldatzeko agenda orokorra egin behar zen (*A global agenda for change*). Batzordearen abiapuntua honakoa izan zen: ziurtasun osoz gizadiarentzat etorkizun oparoagoa, justuagoa eta seguruagoa eraiki zitekeela.

Ikuspegi optimista horrekin 1987ko apirilean "Gure Etorkizun Komuna" (*Our Common Future*) izeneko txostena argitaratu zuen. Txostenak planteatutakoaren arabera, ingurumen-baliabideen iraunkortasun- eta hedapen- politiketan oinarrituta, hazkuntza ekonomikoa lor daiteke. Dena delakoa, etorkizun hobea lortzearen itxaropena baldintzatua dago. Gizakiaren aurrerapen iraunkorra eta planetan gizakiaren biziraupena bermatzeko, ingurumen- baliabideak behar bezala erabili behar dira eta, horretarako, ekintza politico erabakigarriak aurrera atera behar dira. Batzordearen beraren hitzetan, txostenak ez du etorkizuna iragarri nahi, premiazko gaia azaleratu nahi du, hau da, belaunaldi hau nahiz hurrengoak eusteko baliabideak ziurtatu behar dira eta orain erabakiak hartzeko unea da. 1983an Batzordea eratu zenean, Gobernuetik eta Nazio Batuen sistemarekiko organo independentea zen eta guztiok ados zeuden garapenaren eta ingurumenaren gaiak ezin zirela bereizi. Batzordeari hiru agindu edo helburu jarri zitzaizkion:

1. Garapenari eta ingurumenari buruzko gai kritikoak aztertzea eta egiazko proposamenak formulatzea.
2. Garapen eta ingurumenaren politikak formulatzeko orduan eragina izatearren, nazioarteko kooperazio-modu berriak proposatzea, eskatutako aldaketak lortzeko xedez.
3. Indibiduen, erakundeen, enpresen, institutuen eta gobernuen ulermena eta konpromisoa sustatzea.

Batzordeak behatutakoaren arabera, "garapen" adibide askoren ondorioz, pobrezia, ahultasuna eta ingurumenaren degradazioa gehitu egiten ziren. Horregatik, premiazkoa zen garapenaren kontzeptu berria lantzea, hau da, etorkizunari begira giza aurrerapena babesteko gai zen garapena edo, beste hitzetan esanda, "garapen iraunkorra".

Oraingo ekintza asko ustez aurrerapenerantz bideratuta baldin badaude ere, eustezinak dira, natur baliabide urrien gainean gehiegizko zama dira. Baliteke ekintza horiekin gure belaunaldiaren balantze-orrian erabilgarriak izatea, baina gure seme-alabek galerak jasoko dituzte. Hurrengo belaunaldiei baliabideak prestatuta eskatu dizkiegu, nahiz eta jakinaren gainean egon zorra ezingo dela ordaindu.

Horregatik, Batzordearen iritziz, gizadiak "garapen iraunkorra" lortzeko ahalmena du eta hala definitu zuen: **oraingo beharrak bermatzen dituen etorkizuneko belaunaldien beharrak konprometitu gabe**. Garapen iraunkorraren kontzeptuak mugak ezartzen ditu. Batzordearen ustez, egungo pobrezia ez da saihestezina. Ildo horri jarraiki, garapen iraunkorrak gehien behar dutenen alde baliabideak berdintasunaren irizpidea erabiliz banatzea eskatzen du. Berdintasuna lortzeko sistema politikoaren laguntza behar da, erabakitzeko prozesuetan hiritarrek partaidetza eraginkorragoa izan behar baitute, hau da, demokrazia handiagoa nazioan eta

nazioartean. Azken finean, garapen iraunkorra aldatzeko borondate politikoaren mende dago.

Batzordeak hurrengo gaitan jarri zuen arreta:

- **Populazioa eta giza baliabideak:** munduko populazioa oso azkar hazten arida, bereziki, hazkuntza eta baliabide eskuragarriak (etxebizitza, elikagaiak, energia eta osasuna) erkatzen baditugu. Horren inguruan bi proposamen formulatuko dira:
 - Pobrezia murriztea
 - Hezkuntza hobetzea
 - Elikadura: munduan elikagaiak kopuru pentsaezinetan produzitzen ari dira. Hala eta guztiz ere, elikagai horiek ez dira beti gehien behar diren tokietan izaten.
- **Espezieak eta ekosistemak:** garatzeko baliabideak. Planetako espezie asko arriskuan daude, desagertzen ari dira. Arazo hau politikarientzat lehentasunezko kezka bilakatu behar da.
- **Energia:** energiaren eskaera gorantz doa etengabe eta horiek asetzeko berriztagarriak ez diren baliabideak kontsumituko balira, ekosistema ez litzateke jasateko gai. Berotze- eta azidifikazio-arazoak onartezinak lirateke. Horregatik, energia hobe erabiltzeko neurriak premiazkoak dira. Hogeita batgarren mendeko energi egitura iturri berriztagarrietan oinarritu behar da.
- **Industria:** munduak jada 1987an 1950ean baino zazpi aldiz produktu gehiago fabrikatzen zituen. Herrialde industrializatuek honakoa egiaztatzeko aukera izan dute: poluzioaren kontrako teknologia eraginkorra izan dela kostuen ikuspuntutik osasuna, jabetza eta ingurumen-kalteekiko prebentzioa kontuan hartzen baditugu. Era berean, beren industriak orain errentagarriagoak dira, baliabideak hobe erabiltzen baitituzte.
- **Hiri-erronka:** mende berriaren hasieran ia gizadiaren erdia hiriguneetan biziko da. Hala eta guztiz ere, hirugarren munduan dauden hirietako gobernu gutxiak dituzte baliabideak, boterea eta langileak hazten ari diren populazioei lurra, zerbitzuak eta azpiegiturak eskaintzeko. Hori guztia eskuratzea beharrezkoa da bizimodu egokiak lortzeko: ur garbia, osasuna, ikastetxeak eta garraioa. Administrazioaren ikuspuntutik hiriak behar bezala maneiatzeko, tokiko agintarietarantz funtsak, aginte politikoak eta langileak deszentralizatu egin behar dira.

Subiranotasunaren kontzeptu tradizionalak zenbait arazo sortzen ditu ondasun orokor edo komunen ("*global commons*") eta ekosistemen administrazio- -hautabideak bilatzen direnean: ozeanoak, espazioa, Antartikoa. Itsasoaren Legeei buruzko Nazio Batzuen Konferentzia saio bat izan da, baita 1959ko Antartikoko Hitzarmena ere.

Txostenak Gobernuari hurrengo erregua luzatzen die: beren agentziek eta sailek erantzukizunen jardutea ekonomiaren eta ekologiaren ikuspuntutik garapen iraunkorra sustatzeko. Halaber, ingurumenaren kontrolaz arduratzen diren erakundeek zereginak indartu egin behar dira. Azkenik, txostenak ekintzarako deia egiten du. Gogoratzen du hogeigarren mendearen hasieran biztanleak eta giza teknologia ez zirela gai planetaren sistemak aldatzeko. Mendea amaitzean ahalmen hori badu; are gehiago, jada

desiragarriak ez diren aldaketa asko izan dira atmosferan, lurzoruan, urean, landareetan, animalietan eta horien arteko harremanetan. Beraz, antzinako ereduak puskatzeko unea iritsi da. Gizartearen eta ekologiaren egonkortasuna garapenerako eta ingurumen-babeserako eskema zaharkituekin mantentzen saiatuz gero, egonkortasunik eza handiagoa izango da. Segurtasuna aldaketaren bide bilatu behar da.

Batzordeak bere mezua herrialde eta baldintza guztietako pertsoneri luzatu nahi die. Giza jarreretan aldarrikatzen dituen aldaketak egiteko nahikoak dira heziketa-kanpainak, eztabaidak eta hiritarrek parte hartzea.